

KOSTUEN EGITURA

Irabaz-iturrietan adierazi dugun bezala, gure proiektua abian jartzeko egingo dugun hasierako inbertsioa 140.000€koa izango da. Hortaz, bakoitzak 35.000€-ko inbertsioa egin behar izango du. Ugazabotako bik, kreditu bat eskatuko diogu "Kutxabank" bankuari. Beste ugazaba batek, aurreztutako dirua erabiliko du. Azkenak, familiari eskatuko dio kreditu bat interesik ordaindu behar ez izateko. Gure proiektuak, beste guztien antzera, diruaren premia du aurrera ateratzeko. Gastuak halabeharrezkoak dira orduan.

Gure enpresak balioa eta prezioaren arteko harremanik hoberena lortzea izango du xede garrantzitsu gisa. Hau da, ez da kostuak ahalik eta gehien murriztera bideratuko, baina ezinbestekoak ez diren arloetatik egingo dira murrizketak, beti ere produktuaren kalitate gorena bermatuta badago. Esate baterako, beste enpresek egiten ez duten bezala, Franclean enpresak ez du konpostontzi bakoitza material babesgarriz estaliko, baizik eta hauek banatuko dituen furgoria egongo da material horretaz estalita, kostua nabarmenki murriztuta. Hori gutxi balitz, pertsonalizazio maila samarra izango du gure produktuak, diseinu ezberdinak egongo baitira eskuragarri. Ezaugarri hauek guztiak beste konpainietatik bereiziko gaituzte.

Hona hemen gure enpresak izango dituen kostuen sailkapena:


Kostu finkoak: konpostiontzia gure kideetako batek duen jabetza batean egingo ditugu, bertan dagoen pabiloi batean, alegia. Horrek esan nahi du ez dugula alokairurik ordaindu behar izango leku hori erabiltzeagatik. Gure produktua muntatzeko gas naturalik erabili behar izango, hortaz, ez da gure kostu finkoen osagai izango. Urak komunean bakarrik egingo du gastua, eta hileroko 37€ inguru ordainduko dugu. Halaber, gure instalazioak argiztatzeko eta konpostontziak osatzeko beharrezkoak diren tresna elektrikoak funtziona dezaten, argia halabeharrezkoa da. Horregatik, enpresei egokituta dagoen tarifa elektriko bat kontratatuko dugu, 2.1 DHA tarifa izeneko, non energiaren prezioa bi periodotan banatuta egongo den, aktibitate gehien dagoen orduetan gutxiago kostatu dezan. Banaketa kanaletan, azaldurik dagoen moduan, gure produktuak banatzeko enpresa bateko ibilgailuak alokatuko ditugu eta.

Ingeniariak: 16€ orduko kobratuko du ingeniari bakoitzak. Beraz, 2800€ inguru kobratuko dute hileroko.

Gidaria: 7'5 € orduko kobratuko du gidariak. Astero zortzi ordu lan egingo dituzte, hileroko 240€ kobratuko du gutxi gorabehera.

Eskulana: hauek lau orduz egingo dute lan (lanaldi erdia) eta praktikak egiten daudela egongo direnez gure enpresan 200€ ordainduko genieke. Etorkizunean gure enpresan jarraitzeko aukera egongo da eta, orduan, gure kontratuan 1300€-ko soldata egongo da ezarrita.

Kostu aldagarriak: konpostontziak egiteko behar diren materialen prezioa salmenta-bolumenaren araberakoa izango da. Franclean Box bat ekoizteko behar den kapitala 978,31€-koa da.



MATERIALA/ HERREMINTA	KOSTUA (€/un.) / LUZERA (m)
Artelazki natural biribilkia	23,71€
Heldulekua	1,56€
Gurdibidea	6,95€ (bikotea)
Plastiko birziklatua	13,79(5m ²)
Poliuretano hodia	6,95€ (10m)
Tutu uzkurtua	3,95€ (10m)
Ur tanga bikoitza	18,99€ (50 cl [□])
Torlojuak	1,90€/25 unitate (4,5X50mm)
Azkoinak	2,15€/20 unitate (1,96 diametro)
Altzairu sarea	22,27€ (50m x 50cm)
On/off etengailua	7,79€ / unitate
Eztainuzko xafla	3,92€
Arantzelak	3€

Nicron Portzelana hotza	3.136,50€/25kg
Birrintzailea	450€/unitate
burdin xafla	13,75€(67,5x150cm)
Metal kutxa	41€
Motorra	70€